

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Chagos irlak, munduko itsas erreserbarik handiena



Diego Garcia uharteko base militarra.

ERRESUMA BATUAREN menpe dauden Chagos irlak munduko itsas erreserbarik handiena bilakatu dira. 545.000 kilometro koadro ditu uhartediak, eta Indiako Ozeanoan dago, Seychelles-etik mendebaldera eta Maldivas-etik hegoaldera. Bertako ekosistema babesturik egongo da aurrerantzean; batez ere, merkatal arrantza egongo da debekatuta bertan. Orain arteko itsaso-ekosistema babesturik handiena Hawaiiko ipar-mendebaldean zegoen, eta George Bush AEBetako presidente ohiak sortutakoa zen.

Chagoseko 55 irlak oso ezagunak dira koralezko arrezifeengatik eta animalia espezie ugariengatik. 1814. urteaz geroztik Erresuma Batua da beraien jabe; bertako Diego Garcia irla AEBei alokatu zioten, base militarra eraikitzeko. Joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan, Diego Garcia irlako 2.000 biztanleak kanporatu zituen Erresuma Batuk, base hori eraiki ahal izateko. Orduraz geroztik, kanporatutako biztanleak borrokan ari dira hainbat epaitegitan. Une honetan Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren esku dago gatazka.

Txokolatearen onurak

TXOKOLATEAREN onurei buruzko ikerketa ugari egin dira azken urteotan. Oraingoan, Nuthetal Institutuko (Alemania) mediku batzuek eman dute euren ikerketaren berri *European Heart Journal* aldizkarian.

Brian Buijsse ikerlariak zuzendutako ekipoak 35 eta 65 urte bitarteko 20.000 lagunen datuak aztertu ditu. Pertsona horiek, ikerketaren hasieran, ez zuten arazo kardiobaskularrik. Hamar urtez haien presio arteriala, pisua, bizimodua eta elikadura aztertu zituzten. Amaieran, hainbat multzotan banatu zituzten boluntarioak, egunero 1,7 gramo txokolate jaten zutenetik hasi eta 7,5 gramo jaten zutenetara arte.

Emaitzetan, besteak beste, ikusi zuten txokolate asko jaten dutenek bihotzekoa izateko arriskua gainerakoena baino %48 txikiagoa dela. Eta jale horien artean, txokolate beltza jaten dutenen arriskua besteena baino %27 txikiagoa da. On dagizula, bada.



Lurraren berokuntzak nola eragiten dion gure osasunari

Osasunaren Mundu Erakundearen azken buletinak azpimarratu du gizakiaren osasunean gero eta eragin handiagoa duela berotegi efektuak. Esandakoaren adibide zerrenda gero eta zabalagoa da.

<http://ttiki.com/12077> (Frantsesez)

Oilaskoek guk baino kolore gehiago ikusten dute

AEBetako Saint Louis hirian dagoen Washingtingo Unibertsitateko Medikuntza Eskolako ikerlari talde batek, oilaskoaren begia zehatz-mehatz aztertu ondoren, artelan baten aurrean gaudela adierazi du.

<http://ttiki.com/12078> (Gaztelaniaz)

Alkoholaren aurkako publizitatea haren aldeko bihur daiteke

Indianako Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde baten arabera, hainbat administraziozko alkoholaren gehiegizko kontsumoaren aurka egindako kanpainetan erabilitako arrazoiek, hala nola hainbat arazoren aurrean lotsa edo errua sentitzeak, aurkako efektua izan dezakete pertsona batzuegan.

<http://ttiki.com/12079> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16